

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2021eko urria

Euskal AEko landetxeetan eta apartamentu turistikoetan izandako sarrerei eta gaualdiei buruzko datuak, 2021eko urrian, are 2019koak baino hobeak izan dira

Estatuko pertsonak dira susperraldiaren oinarri

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko **landetxeetan** 15.684 sarrera eta 38.782 gaualdi izan dira urrian, aurreko urteko hil beraren aldean % 169,6 eta % 172,4 gehiago, hurrenez hurren.

2019ko urriaren aldean, Euskal AEn % 4,7 gehitu dira sarrerak, eta gaualdiak % 25,6.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2021eko Urria

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/10	m/m-12 (%)	2021/10	m/m-12 (%)	2021/10	2020/10	plazaka		gelaka	
							2021/10	p.p.*	2021/10	p.p.*
EUSKAL AE	15.684	169,6	38.782	172,4	2,47	2,45	28,4	17,1	32,5	17,4
Estatukoak	13.776	150,0	35.018	161,9	2,54	2,43	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.908	523,5	3.764	333,1	1,97	2,84	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	3.684	338,6	8.593	293,8	2,33	2,60	26,3	18,9	29,1	19,6
Estatukoak	3.493	315,8	8.223	276,9	2,35	2,60	-	-	-	-
Atzeritarrak	191	-	370	-	1,94	-	-	-	-	-
BIZKAIA	4.639	172,7	10.727	197,0	2,31	2,12	27,0	17,3	30,7	16,3
Estatukoak	3.995	147,4	9.438	175,3	2,36	2,12	-	-	-	-
Atzeritarrak	644	648,8	1.289	600,5	2,00	2,14	-	-	-	-
GIPUZKOA	7.361	124,7	19.462	130,5	2,64	2,58	30,3	16,0	35,4	17,0
Estatukoak	6.288	105,8	17.357	123,7	2,76	2,54	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.073	387,7	2.105	207,3	1,96	3,11	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landetxeetako sarreraren % 87,8 eta gaudien % 90,3 Estatutik etorritakoak izan dira, urte arteko % 150 eta % 161,9ko hazkundeein, hurrenez hurren. Atzeritar jatorriko pertsonen kopuruak gora egiten jarraitzen du urte batetik bestera, baina oraindik ere sarrera guztien % 12,2 eta gaualdi guztien % 9,7 baino ez dira.

Lurraldeka, sarreraren urte arteko hazkundera % 338,6koa izan da Araban, % 172,7koa Bizkaian eta % 124,7koa Gipuzkoan. Gaualdiei dagokienaz, % 293,8 gehitu dira Araban, % 197,0 Bizkaian eta, azkenik, % 130,5 Gipuzkoan.

Euskal AEko batez besteko egonaldia 2,47 egunekoa izan da mota horretako establezimenduetan. Balio hori 2020ko urriko 2,45 eguneko batez besteko egonaldiaren antzekoa da, eta 2019ko urriko 2,06 egunekoa baino handixeagoa.

Plazakako eta gelakako betetze-mailek ehuneko 17,1 eta 17,4 puntuko igoerak izan dituzte urte batetik bestera, hurrenez hurren. Plazakakoak % 28,4 dira, eta gelakakoak % 32,5.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2021eko urrian, sarrerak eta gualdiak 10.013 eta 41.875 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko urriaren aldean, sarrerak % 156,1 gehitu dira, eta gualdiak % 123,0. Balio horiek 2019ko urrian lortutakoekin alderatzean, % 24,4 igo dira sarrerak eta % 58,3 gualdiak.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2021eko Urria

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/10	m/m-12 (%)	2021/10	m/m-12 (%)	2021/10	2020/10	plazaka		apartamentuka	
							2021/10	p.p.*	2021/10	p.p.*
EUSKAL AE	10.013	156,1	41.875	123,0	4,18	4,80	35,3	15,5	66,9	19,5
Estatukoak	7.516	127,5	29.585	107,6	3,94	4,31	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.497	311,4	12.291	171,6	4,92	7,46	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	1.026	48,8	8.061	34,5	7,86	8,70	26,6	5,8	65,8	10,9
Estatukoak	967	46,1	6.295	18,9	6,51	8,00	-	-	-	-
Atzeritarrak	59	114,2	1.766	152,2	30,04	25,52	-	-	-	-
BIZKAIA	6.303	212,8	14.921	97,6	2,37	3,75	33,2	11,7	51,7	6,8
Estatukoak	4.628	161,8	10.578	108,7	2,29	2,87	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.675	578,0	4.342	75,0	2,59	10,04	-	-	-	-
GIPUZKOA	2.684	122,5	18.894	261,0	7,04	4,34	43,5	26,6	77,1	33,9
Estatukoak	1.921	119,9	12.711	226,7	6,62	4,45	-	-	-	-
Atzeritarrak	763	129,5	6.183	360,2	8,11	4,04	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Estatuko sarrerek nagusi izaten jarraitzen dute, Euskal AE osoko sarrera guztien % 75,1 izanik. Estatutik etorritako gualdiak, berriz, gualdi guztien % 70,6 izan dira. Bi aldagai horiek balio oso positiboak agertzen dituzte 2020ko urriaren aldean: % 127,5 eta % 107,6 handiagoak, hurrenez hurren. Atzerriko jatorriko pertsonen sarrerak eta gualdiak, intentsitate handiagoz berreskuratu badira ere, Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera eta gualdi guztien % 24,9 eta % 29,4 dira.

Batez besteko egonaldia 4,18 egunekoa izan da 2021eko urrian, 2020ko urrian lortutakoa baino laburragoa, orduan 4,80 egunekoa izan baitzen, eta 2019ko urrian erregistratutakoa (3,29 egunekoa) baino apur bat luzeagoa.

Lurraldeei dagokienez, batez besteko egonaldia 7,86 egunekoa izan da Araban eta 7,04 egunekoa Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, 2,37 egunekoa izan da.

Apartamentu bakoitzeko betetze-maila % 66,9koa izan da Euskal AEn; hau da, ehuneko 19,5 puntu igo da 2020ko urriaren aldean.

Informazio-oharra

Landetxeen ETHIren erantzun-tasa urrian **% 97,1ekoa** izan da, eta Apartamentu Turistikoena **% 87,7koa**. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf.: 945 01 75 62